

Simon Bolivarren zintzotasuna

Deia, [1980-12-09].

Herrien askatasunaren alde joka duten gizon haundiak ba dute, beste doaien artean, niri beti liluratu nauen bat: osotasun batek eskatzen dien zintzotasuna.

Preziorik gabeko eskeintza bat.

Egun hoietantxe irakurtzen aritu naizen Sabino Arana-ren eskutitzen artean ba da bat, oso laburra, Peli Pertika ta Matzo jaunari Larrinaga espetxetik zuzendua;¹ nonbait jaun honek, abertzale izateko zer egin behar duen edo honelako zerbait galdetuko zion, eta hara Sabin-ek zer erantzuten dion:

"Aberrijaren aldez bizi izatia, da nobera gitxijago ta txartzago bixi ixatia. Aberria geiago ta obeto bixi ixateko: da noberaren bixitxea aberrijari emon".

Hauxe, besterik ez!

Orain urtebete Caracas-en Simon Bolibar dela-eta liburuxka bat idazteko eskatu zidaten. Gaia: gizon haundi hau Venezuelan babestu zuten etxeak. Hala, nik *Las casas del Libertador* jarri nion izenburu bezala. J.L. Salcedo-Bastardo² jaunak nire lana ikusi zuen bezain laster adierazi zidan, izenburu hau, Bolivar-i ez zegokiola etxe aberatsean jaiotz izanagatik, ez zela inoiz etxe baten nagusi izan.

Eta, hala: *Bajo estos techos* izendatu nuen bestearen ordez.

Egokiagoa, noski.

Arístides Rojas idazle benezolarrak ongi dion bezala, Bolivar ez da Kijote eskuzabal bat besterik izan; handi pentsatzen zuen, ez eskutartean gauza handiak zerabilzkialako, zerabilzkianak bere handitasunez handiezen zituelako baino; Askatasunaz egiten zuen amets ederrak emoten zion kreditu hura nahikoa zen esku hutsik zuenaz behar zuena aurkitzeko.

Eta inoiz bererik ba zuen baliatzen zen zehazki.

Behingo honek adierazten duen bezala:

1825eko abenduak 9. Chuquisaca-ko (gaur Sucre) udal etxean jai handi bat antolatu dute Lima-koak Bolivar-i eskeintzen dion ezpata bere eskuetan jartzeko.

Ayacucho-ko garaipen handiaren lehenengo urtebetetzea zen.

Espainola izan zen Amerikaren askatasuna seguratu zuena.

Ba, kosta izan zen dirua, Caracas-en bere arrebak beretzat zituen 5.500 pesorekin ordaindu zuen, horretarako bidali zion eskutitz batean ageri den bezala.

Beste hau, Turbaco-n idatzia dago 1827go abuztuak 7, Magdalenako Intendente den Mariano Montilla jeneralari zuzendua dago, eta dio: "Intendente jauna: pena izan dut

¹ Roosevelt Lehendakariari telegrama bat bidaltzeagatik espainiarrak espetxeratua izan zen Sabin; Amerikako Estatu Batuak Cuba-ri askatasuna ezagutu ziotelako, zorionak ematen; 1902go ekaina da.

² Idazle eta irakasle ospetsua; Bolivar ondoen, sakonen, ezagutu eta honetaz hizkuntza askotara itzuliak izan diren liburuak idatzi ditu; bat euskarara ere: *Bolivar, Amerikako Askatzailea*, Ediciones Vascas Argitaladaria, Donostian, 1978.

gaur zure Estado Mayor-eko presupostuan nire sukaldariaren 50 pesoko soldata ikusi dutanean; mesedez, kontu hori niri pasako didazu".

Beste behin, Alto Perú-rantz zijoala bideko udaletxe batean eskeini zioten dantzaldi bat eratzeko diruak herrikoak izan zirela jakin zuen bezain laster, udalgizonei dei egin eta esan zien; zuen poltxikotatik jarri zazute diru hori, nik bihotz-kezkarik gabe zuengan eskertsu geratzea nahi baduzute: "udaleko diruak herriarenak baitira".

Aberatsa zen gizon hau, eta bere emankortasuna dela-ta, berea ez den etxean hiltzen da.

Norbaitek utzi zion ohe batean.

Hau, orain dela 150 urte gertatu zen, 1830go abenduak 10 zituela, eta gizarteak maitasunarekin gogoratzen eta goraiatzen du.

"Yo moriré como nací, desnudo" –esan zuen behin.

Eta hitz hau ere, emandako beste asko lehertzeraino bete izan zituen bezala, zehazki bete zuen.